

KULTURA: DRAGOIAREN ETA ESTRAPERLOAREN BIDETIK

Arrasate

PRESSA

2001.eko
ekainaren 1a
549. zenb.

ESCUELA
DE
APRENDICES

Aprendizen Eskolaren oroimena bizirik

Daniel Montalban irakasle ohiarekin berbetan

Etxeko konponketak

Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak, ateak, oholtzak, leihoak etab.



Garagartza auzoa, 5-2.
(Bixiena Baseria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83

ARROZTEGIA
LAGUN

Markoalde, 5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

Igeltzaritza



Izcue Irurzun

Igeltzaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Leihoak



ARGÍ PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea, 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 11 35

Elektrizitatea

ARANZABAL



KOOP. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83



ARRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak

24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)

Tel.: 943 79 17 53

AURI

Loramendi 7, 2 behea
Tel.: 943 77 08 88

Iturgintza • Bainuak
Gasa • Berogailuak

EGIA

iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Margoak

APAIN
MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

JOVI

10.000 KOLORETAKO MENUA
Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

Giltzak



• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren salmenta eta zorrozketa • Larruzko gauzak
• Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1
Tel./Fax: 943 79 76 03

Gida honetan azaldu
nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91
telefonora

urteurrenak

Saihesbidea zabalik

■ **67. zenb.**
(1990-06-08)



Arrasateko saihesbidea ofizialki inauratu zuten. Hantxe izan ziren, besteak beste, Xabier Zubizarreta Arrasateko alkatea, Imanol Murua Gipuzkoako diputatu nagusia, Jesus Mari Akizu udal harremanetarako diputatua eta Julen Goikoetxea Garraio eta Herri Lanetarako diputatua. Saihesbidea 1988ko abenduan bukatuta egon behar zen, baina Altuna y Uria enpresak Aldundiarekin izan zituen tirabirengatik, lanak atzeratu egin ziren. Eta lanak bukatu berri, euriteek ekarritako lur-jauziek ere lanak atzeratu zituzten.

Gaszte informazioa bulegoa

■ **67. zenb.**
(1990-06-08)

Garibai etxean gazteen informaziorako udal bulegoa ireki zuten. Bulego hori antolatzeak, batez beste, zazpi milioi pezeta-kostua izan zuen, eta horren bitartez, gazteendako informazioa hartzaileri gerturatzeari ahalbideratu gura zuten. Era berean, gazteen informaziorako udal bulegoa Euskal Autonomia Erkidegoko beste udal bulegoekin koordinatuta dago.

Lur azpiko aparkalekurik ez

■ **67. zenb.**
(1990-06-08)

Gobernu batzordeak erabaki zuen Eusko Promociones enpresari Cordoba y Orio eta Obenerreka plazetan lur azpiko aparkalekuak egiteko adjudikazioa kentzea, oso jende gutxi eman baitzuen izena aparkalekuan lekua lortzeko, eta, ondorioz, ezinezkoa zelako aparkalekua egitea. Antzadenez, auzo horietako bizilagunek aparkalekuen jabegoa eskuratu eta aparkalekuak itxiak izatea gura zuten.

besteek esana



Uria jaunak ez ditu Balmasedako, Ondarroako edo Barakaldoko lehoiak nahiago, izango direnak onartuko ditu, Lizarrakoak, Aguraingoak edo Barakaldokoak badira ere. Ni ez naiz Bilboko alde zaharrekoa, ezta Negurikoa ere, Arrasatekoa baizik, baina Uriaren hautagaitza da, nire ustez, egun, gure Athleticendako hoberena, Lamikiz jauna gutxietsi gabe. Eztabaida gutzia lagun giroan joan dadila, baina programak pare-parean jarri, eta emaitzak, direnak-direla, athleticzale gutzien onurarako izan daitezela»

Eloy Marteache
TABERNARIA ETA ATLETICZALE
AMORRATUA

(2001eko maiatzaren 28a)

aurkibidea

- Lehen begiratu 3
- Inkesta 7
- Behéko dendatik 21
- Asteko hitzorduak 4
- Orain eta hemen 8/10
- Hazi eta hezi 22
- Herritarren berbak 5
- Txutxumtxuak 11/13
- Kulturaren txokoa 23/24
- Astearren erreposoa 6
- Aurrez aurre 14/15
- Uhinetan barrena 25
- Kirolak jokoan 16/20
- Foto zaharra 26



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otolora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Iker Barandiaran. **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabarría eta Xabier Urzela. **Publizitateak:** Arantza Lagunilla, Natalia Martínez eta Izaskun Bolinaga. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administratzailea:** Agurtzane Gáinzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90). **Diselnuak:** Alex Azkarate. **Asteburuetako berriemakileak:** Lorea Agiriano. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odrozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oriati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Arrasateko Udalaren laguntza

Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

ZERBITZUAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Iguialtorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
Barikura 14:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan egun osoa
Arrasate
Astelehenetik
Barikura 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44
. 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Zapatua	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia (euskaraz)

Domeka	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jalegun bezpera eta zapatua	Domeka
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

lamai kafetegian antzerkia

Ekainaren 1ean, *Gu-Gu Txupete* antzezlanaren jokatu da Kontzeziño kaleko lamai kafetegian, gauerdian.

mendekosteko gau-aldia

Otoitz bilera antolatu du Arrasateko Eliza Mankomunitateak Mendekoste gau-aldirako. Ekainaren 2an hasiko da, 21:00etan, Kontzeziño Amen komentuan, Udalarako erregealdian.

gutxituen eguna

Buruko gutxitasuna dutenen eguna ospatuko da ekainaren 3an. Honako ekintzak antolatu dira: kalejira, bazkaria Uarkapen, opari eskaintza eta jaialdia. Gerturatu gura duen gutzia gonbidatuta dago.

musika eskola

Ekainaren 21a arte, datorren ikasturterako matrikula epea zabaldu du Jesusi Etxebarria musika eskolak. Solfeo, kantu koral, piano, akordeoi, txistu, txirula, gitara klasiko, gitara elektriko eta gitara baxu eskolak emango dira. Uztailean, eskola trinkoak emango dira. Argibideetarako, deitu 943 711767 edo 652713828ra.

erguin herri-eskolaren jaiak

Ekainaren 2an, Erguin herri eskolak jaiak ospatuko du. 10:00etatik 13:30ak arte, tailerrak, puzgarriak, musika eta karatea izango dira.

danborradarako entseguak

Helduen danborradarako entseguak ekainaren 4an hasiko dira, eta astelehen eta eguaztenero egingo dira, 20:30ean, San Vitorren.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Egubakoitza, 1

- Azkoaga, Iturriotz

Zapatua, 2

- Corcuera, Aranbarri

Domeka, 3

- Irizar, Erguin

Astelehena, 4

- Amezua, Santa Marina

Martitzena, 5

- Zabala, Zarugalde

Eguaztena, 6

- Ruiz, Magdalena

Eguena, 7

- Morales, Araba

eguzkiaren bila

Eguzkiaren bila izeneko antzezlanaren aurkeztuko dute Txatxiaristek. Ekainaren 2an izango da, Gazteluondon, 17:30ean.

udalekuen gainean

Txatxilipurdik Beintzan antolatu dituen udalekuen gaineko informazioa emateko, diapositiba emanaldia eta hitzaldia egingo ditu. Euren egoitzan izango dira, Pablo Uranga kaleko 6. zenbakian, ekainaren 8an, 19:00etan. Bestalde, uztaileko udalekuetan izena emateko epea ekainaren 15ean bukatuko da. Txatxilipurdiren egoitzan egin beharko duzue, 11:00etatik 13:00etara edo 16:00etatik 19:00etara, edo 943 79 54 46 telefonora dei eginez.



Herritarren berbak

Euskal diaspora eta hauteskundeak

Txipi Ormaetxea / Irakaslea

Hasteko, zer esan gura du diaspora berba potolo horrek? Ia seguru nago duela zenbait hilabete kalean inkestatxo bat egin izan balitz, batek baino gehiagok ez zukeela jakingo erantzuten. Eta orain egingo balitz? Nago orain askoz ezagunagoa dela, azkenaldion hedabide-etan askotan agertu den inpresioa baitut.

Asko gara Euskal Herrian familiakoren bat kanpoan dugunok. Eta gutxi edo asko badakigu zelan bizi diren, zer pentsatzen duten... Baina ez dago bertara joatea bezalakorik. Ideia osoagoa hartzen da orduan. Diasporan daudenak, Euskal Herritik oso urrun gehienak, zinez maite dute Euskal Herria eta oso interesaturik daude hemen gertatzen denaz. Eta orain, lehen ez bezala, informazio gehiago eta hobe dute, batez ere Internet-i eta Canal Vasco telebistari esker. Esaterako, e-mail bat jaso berri dut Puerto Ricotik, Jesus Lasaga aramaioarrak bidalia, eta esaten dit egun berean Aramaiori buruzko erreportaje bat ikusi duela. Hori pentsaezina zen orain dela urte batzuk.

Hauteskundeak direla eta, beldurrik gabe esan dezaket euskal diasporak arreta handiz jarraitu dituela. Hemengook asko jokatzeko gaitasuna du. Baita ere diasporako-

ek. Hemen sumatu den beldur berbera izan dute han. Haiek ondo baino hobeto zekiten, Oreja lehendakari jarriz gero, zer zetorkigun, guri eta haiei. Seguru nago, emaitzak jakitean, Jesusek nik baino poztasun handiagoa sentitu duela.

Lau orriren ikaran zegoen, pentsatuz espainol bat izango zela lendacari. Beste mezu batean esaten zidanez, zenbait lagunek hango euskal etxean jarraitu zuten hauteskunde-gaua (haientzat arratsaldea) irrika biziz. Eta ospatu ere bai. Eta pentsatzekoa da antzera gertatu dela euskaldun-komunitate handiagoa duten herrietan: Venezuela, Argentina, Mexiko, Uruguai...

Beste kontutxo bat: hemen zerbait agertu da diasporakoekin sinatzen ari diren idazkia dela-eta. Testu hori osorik irakurtzeko aukera izan dut, baita bizpahiru bider irakurri ere, eta benetan diot inolako eragozpenik barik izenpetuko nukeela neuk ere, Euskal Herria maite duten guztiek zurrerik egingo luketen moduan. Baina honetaz gehiago, agian, hurrengo batean.

Besarkada handi bat hemendik Jesus Lasaga eta Jose Errasti aramaioarrei, eta gainerako guztiei.

“Diasporan daudenak, oso urrun gehienak, zinez maite dute Euskal Herria eta oso interesaturik daude hemen gertatzen denaz”

aste gazte

■ HEZIKETA ZIKLOAK

• Erdi eta goi mailako heziketa zikloen gaineko informazio zabaldua daukagu. Izena emateko epea: ekainaren 1etik 12ra.

■ LANA

• Oretarako Udalerako bost udaltzain behar dira. Epea: ekainak 7.

• Nafarroako Foru Erkidegorako 20 suhiltzaile behar dira. Epea: ekainak 11.

• Bilboko Udalak albaitariak eta suhiltzaile gidariak behar ditu. Epea: EAOn argitaratu zain.

• Hernaniko Udalak hainbat postu bete nahi ditu: umezaintzako langilea eta liburutegi laguntzailea. Epea: EAOn argitaratu zain.

■ AUZOLANDEGIAK

• Eusko Jaurlaritzak antolatutako auzolandegietan bete barik gelditu diren plazen eskaintza. EAEko hainbat herritan lana egiteko aukera, 18-30 urte bitartekoendako.

■ UDAKO EKINTZAK

• Txatxilipurdiren eskutik, ekainean eta uztailan hainbat ekintza egiteko aukera. LH-ko 5. mailatik eta DBH-ko 4. maila arteko ikasleendako programa.

■ TXARTELAK

• Nazioarteko gazte, ikasle edo aterpetxe txartela eskuratzeko aukera duzu Gazte Bulegoan.

■ LEHIAKETAK

• Irun Gaztea umorezko komiki tira. 16-30 urte bitartekoendako, euskaraz nahiz gaztelaniaz, koloretan edo zuri-beltzean. Epea: ekainak 13.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
943 77 00 65



USTEAK USTE

Kontzientzia garbi?

Sarri, albokoek ere arazo latzak izaten dituzte, baina gainontzekoak errutinako gurpil-zoroan murgilduta egoten garenez, ez diegu behar besteko jaramonik egiten halakoei. Antzeko zerbait gertatu zaigu batzuei garbitzaileen protesta eta grebarekin. Denbora luzean, sindikatu eta enpresarien artean konponbidea bilatzen aritu ondoren, langileek eta sindikatuek greba mugagabea hastea erabaki zuten apirilaren 23an, oraindik eten ez dutena. Zenbait lekutan grebalariek gutxieneko zerbitzuak betetzen badituzte ere, beste hainbat lekutan ez, eta greba luzatzeak eragin garrantzitsua dauka, zer esana ematen ari dena. Bestalde, kontuan hartu behar dugu langile horiek hilabete eta ia bi aste daramatzatela euren eskubideen alde borrokan eta denbora horretan ez dutela pezeta bakar bat bera ere etxera eramane. Denon onerako, patronalak langileen eskaerak bete beharko lituzke, eta guk, zuzenki edo zeharka kaltetuak garenek, horren alde presionatzea.

Iker Barandiaran

astea bi hitzetan

■ Elkartasun adierazpena

Hirugarren Munduko erre- alitatea zein den jakiteko aukera izan zen zapatuan. Harreman, Komite Internazionalistak, Mugarik Gabeko Ingeniariak eta Caritas erakundeek antolatutakoa izan zen. Baina kanpoko erakundeei ere egin zieten gonbita eta, besteak beste, Unicef, Intermon eta Munduko Medikuek elkarrean ordezkariek etorri ziren. Erakunde bakoitzak Hirugarren Munduko erre- alitatearen ikuspuntua eman zuen; batzuetan umeak eta gerrak ziren protagonista, bestetan hezkuntza, elikadura urritasuna.

■ Apologiarik ez

Piter eta Alberto Encinas anaiekin bat egin dute EH, EA, EB eta Zutik alderdie- tako Gipuzkoako zuzenda-

ritzek. Halaxe adierazi zuten egubakoitzeko prentsurre- aldoan. Alderdi politiko horien ordezkariek argi utzi gura izan zuten Encinas anaiek ez zutela ETArekin alderdi- rrikapenik egin maiatzaren 17ko manifestazioan, Ertzaintzak esaten duena- ren kontra. Eta hori azal- tzeko, behin eta berriro gai- neratu zuten bat zetoze- la Zutik alderdiaren ideolo- giarekin, hau da, bide demo- kratikoak erabiltzearen alde- koak direla.

Legedi berriak dioenaren arabera, terrorismoaren apo- logia egiteagatik, 5-6 urte bitarteko kartzela zigorra ezar diezaiakete bi mondra- goetarrei.

■ Hamar urte

Arrasateko gaztetxeak hamar urte bete ditu ospitale zahar- rean. Hori dela eta, apirile-

an eta maiatzean egin diren ospakizunei amaiera emate- ko festa handia egin zuten zapatuan. Txalaparta doi- nuekin hasi zen festa, eta egun osoan giro ederra izan zen. Herri bazkarian, esate- rako, ehun bat lagun elkartu ziren eta guztiek, gero, "Tor- ni Show" mimo ekitaldiaz gozatzeko aukera ere izan zuten. Horren ondoren, gau partean, Donostialdeko Snobs eta Discipulos de Dio- nisosen punk rock doinuekin batek baino gehiagok egin zuen dantza. Horrez gain, nabarmentzekoa da baita ere azkenaldian herriko gazteak gaztetxea indartzeko egiten ari diren lana. Udalak ate berriak jarri ditu eta gazte- ak ospitale zaharra egokitzen ari dira. Gainera, herriko zenbait koadrila buru-bela- rri esku hartzen hasi dira gaztetxea kudeatzen.

■ Lontxo sutan

Olarte kalean dagoen Lontxo taber- nak su hartu zuen pasa den eguba- koitzean. Berehala, Ertzaintza eta suhiltzaileak gerturatu ziren, eta suhil- tzaileek bi kamioi erabili behar izan zituzten. Pare bat orduz aritu ziren sua itzali nahian, eta ke ugari sortu zen, baina zorionez sugarek ez zuten gora egin eta goiko pisuetakoek ez zuten kalterik izan.

Itxura guztien arabera, zirkuitu- labur baten ondorioz piztu zen sua eta tabernako sukaldea zeharo erre zen. Kalte materialak handiak izan dira.



UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

Monte
taberna
Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

Beteten ditzuzu ingurumen gomendixuek?

Arrasate Pressek hamabostian behin Arrasate XXI izeneko txostena plazaratu du



Ana Rosa Guridi
(Etxekoandrie)



Ana Herrera
(Langillie)



Lorea Estevez
(Langillie)



Asier Barbadillo
(Ikaslie)

Ez, ez dot gomendixo bat bera be beteten. Dana dala, ondo pentsetan jat holako informaziñue ataratie.

Bai, jakiña! Batez be lantegixen, danetik birzikletan dogu. Informaziñue jasotziari oso ondo erizten dotset.

Bai, ahal dotena egitten dot ingurumena zainketako. Danok jaso biharko geunke informaziño gehixago, ia kontzientzia hartzen dogun.

Birziklau, behintzet, egitten dot; bestelakorik, batzutan bakarrik. Gehixago jakittiari ondo erizten dotset.




Jon Barbadillo
(Ikaslie)

Gomendixo batzuk beteten dittut, baiñe beste batzuk ez. Ondo pentsetan jat komunikabidiek horren berri emutie.



Susana Mata
(Langillie)

Batzui kasu egitten dotset, bai, baiñe beste batzuk ahaztu egitten jat. Informaziño gehixago gustora jasoko neuke, bai.



Roberto del Campo
(Langillie)

Etxien eta lanien, bai, neure esku dagoena egitten dot. Garbiketa enpresa bat dauket, eta gauzak hobetzen dabitz.



Iñigo Oñederra
(Langillie)

Bai, batzutan beteten dittut horreik gomendixuok, eta ingurumen arazozen berri gehixago jasotie ondo pentsetan jat.

**OSORIK
PUB**
Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

"PAL"
burdindegia,
brikolage
eta tresneria
Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

**MARKO-JARTZEAK
ALDEDI**
Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

Energiaren erabilera zaintzeko asmoa

Arrasateko Udalak eta Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) energiaren erabilera zentzuzkoa eta energia berriztagarrien ustiapena bultzatzeko lankidetzaz hitzarmena sinatu dute. Oro har, Arrasateko ingurumena hobetzea da helburua.

EKIMENAK

Eta hitzarmen horren barruan egingo diren ekimenen artean, udala hasi da dagoeneko batean lanean: Musakolako kiroldegian dauden instalazio ter-

mikoen ikerketa energetikoa. Helburu bikoitza du ikerketa horrek. Batetik, instalazio termikoetan hobekuntzak egiteko aukerak aztertzea, eta bestetik, kogenerazio termoelektroko bateratua (gas naturala eta eguzki energia, biak batera erabiltzea) ezartzeko bideragarritasun tekniko-ekonomikoa aztertzea.

Ikerketa hori egiteko, uztaile arteko epea eta ia milioi bat pezeta ditu Energiaren Euskal Erakundeak.

Arrasate XXI

GARAPEN JASANGARRIAREN BIDEAN

Arrasate 2001.eko maiatzaren 18a 11. zenb.

Oinezkoaren eskubideen Europako Gutuna

Oinezkoaren eskubideen Europako Gutuna, Arrasateko Udalak diote gaur sinatu duena, oinezkoari lotutako zenbait eskubide jasotzen ditu, eta besteak beste hauek:

Gizakiaren neurria eta ez automobilaren neurria antolatutako hirigune eta baserri-guneetan biltzeko eskubidea, eta oinez edo biziak diren samar posteko moduko azpiegiturak ezartzeko eskubidea.

Batetik, abaila eta hirigune zaharrek irriserlatzeko eskubidea, baina ez daramela izan "onuzkoaren sarrabak", hirigune antolatua onuzkoaren zentzuzko sartutakoak izateak. Bestetik, oinezkoak eskubide eskubidea dauka ibilide



Oinezkoaren eskubidea du oinezkoak biziak diren samar posteko moduko azpiegiturak ezartzeko.

Automobila eroaten zeudelako, gurpila zulatu zien udaltzainei



Arrasateko gazte batek Udaltzaingoaren automobilaren gurpila zulatu zuen labain batekin, haren automobila eroaten zebiltzanean. Kontua da martitzen goizaldean, udaltzain patruila bat Makatzena aldeira joan zela gaizki aparkatuta zegoen automobil bat kentzera. Udaltzaingoak adierazitaokoaren arabera, lehenik, jabearen etxera deitu zuten hari abisatzeko, baina ez zuen inork erantzun. Aldiz, garabia automobila kentzen zegoela, jabea

agertu zen, zegokion isuna ordainduko zuela-eta, autoa ez eroateko esanez. Ordea, une hartan ez zuela dirurik gaineratu eta etxera joan zen. Hori ikustean, udaltzainek automobila eroateko lanetan segitu zuten. Orduan, J.F.S.T. 24 urteko gaztea berriro ere kalera jaitsi, udaltzainen automobileria hurbildu eta gurpil bat zulatu zion.

Orain, gaztea indarkeriatatik eta kalte materialak sortzeagatik akusatu dute.

Euskara bultzatuz

Arrasateko Udalak eta Euskadiko Kutxak hitzarmena sinatu dute euskararen erabilera bultzatzeko.

Horren bitartez, Euskadiko Kutxak bere bulegoetan bezeroekin dituen harremanetan euskararen erabilera ugaltzeko ahalegina egiteko konpromisoa hartu du, bezero euskaldunek zerbitzua euskaraz jaso dezaten.

Horretarako, bezero euskaldunei euskaraz bakarrik bidaliko diete informazio idatzia. Gainerako bezeroei bi hizkuntzatan bidaliko diete gutzia, betiere, euskarari lehentasuna emanez. Oraingoz, Euskadiko Kutxak Arrasateko Udalarekin sinatu du hitzarmena, baina asmoa du Debaioeneko gainerako herriekin ere sinatzeko.

Eskuragarritasuna lortzeko hitzarmena

ONCE elkarteak eta udalak hitzarmena sinatu dute, herriko zenbait leku ezinduendako egokitzeko. Hain justu, udaltzapea izango da egokitzapea jasango duen lekuetarikobat; Iturbide egoitza izango da bestea eta kiroldegia hirugarrena.

Lan horiek 2001-2003. urteen artean egin beharko dira. Oraingoz asteko gobernu

batzordeak hartu du erabaki hori.

ARRATOIAK

Jorrotutako bestelako gaien artean, esaterako, Elkano kaleko auzo elkarteak aurkeztutako eskaera bat ere izan du. Arratoiak daudela diote auzotarrek, eta udalak onartu egin du hori frogatu eta beharrezko neurriak hartzea.

Unai Parotek jipoia jaso duela salatu dute

Pasa den astelehenean, Unai Parot presoak jipoitu zuten Alcolea kartzelako zazpi funtzionariook. Halaxe salatu zuen Mondragoeko Senideak-Gureak elkarteak eguaztenean emandako prentsaurrekoan. Hantxe izan ziren, besteak beste, alkatea eta preso mondragoetarren zenbait senide ere. Kontatutakoaren arabera, funtzionario batek Unairi galeriaz aldatu behar zutela jakinarazi zionean, euskal presoak esan zion bera (funtzionarioa) zela aldaketaren erruduna, eta, horren aurrean, funtzionarioak eskuburdinak ipini eta lau orduz modulu batean utzi zuen, bakarrik. "Lau ordu horien ondoren, zazpi funtzionarioz osatutako talde bat joan zitzaion eta galerian konortea galdu arte jipoitu zuten; gorputz osoan kolpeak eta markak ditu".

Alkateak gaineratutakoaren arabera, "horrelakoetan ohi denez, orainoan ere Espainiako gobernuak ukatu egin du gertatutakoa, eta ez digu utzi Unai ikusterik. Horrek berak erakusten du zerbait ezkutatu nahian dabilzala". Adierazi zuen, baita ere, sistema demokratikoa derrigortuta dagoela atxilotuta daudenen tratuegia ziurtatzera eta Espainiak ez duela hori egiten, hortaz, ez dela sistema demokratikoa.

MARTXARAKO GONBIDAPENA

Egunotan Frantziako kartzelatan zehar egiten ari diren martxaren berri ere eman zuten prentsaurrekoan. Maiatzaren 14an hasi zen martxa, eta Frantziako kartzelak bisitatzera du helburu, euskal presoek eskubideak aldarrikatuz. Izan ere, Senideak taldearen esanetan,



Frantziak errepresioa erabiltzen du euskal presoekin. Era berean, Ipar Euskal Herrian dauden iheslarien egoera ere salatu dute, tartean bi mondragoetarrena. Adierazitakoaren arabera, biek ere hona etortzeko eskaera aspalditik eginda izan arren, ez dute erantzunik jaso, eta orain, Frantziatik kanporatzeko arriskuan daude.

Horrela, bada, ekainaren

9an Parisera egingo den martxan esku hartzeko gonbita egin dute. Interesa duenak Iratin eman beharko du izena ekainaren 6a baino lehen; eta martxan esku hartu barik elkartasun adierazi gura duenarendako, txartel-laguntzak ere salgai daude Irati tabernan.

Unai Parot Arrasateko Presoen Taldean dago sartuta aspalditik, iraganean Arrasaterekin izandako loturagatik.

Etxebizitza beharra dute MUko ikasleek

Mondragon Unibertsitatera ikastera datozen ikasleek etxebizitza beharra dute, eta hemen ez da batere erraza topatzea. Hori dela eta, unibertsitateak berak, ikasleei etxebizitzak topatzen laguntzeko, web orria jarri zuen abian duela pare bat aste. Eta Iñaki Madinabeitia zerbitzu horren arduradunak adierazitakoaren arabera, oraingoz, 40 bat lagunek eskatu dute etxebizitza eta ez dute erantzunik jaso, ez dagoelako etxebizi-

tzarik alokatzeko.


Gainera, laster matrikulazio garaia hasiko da eta eskaera gehiago jasotzea espero dute. Hori dela eta, Iñaki Madinabeitia dei egin die etxebizitzaren bat dutenei unibertsitatearen zerbitzua erabili eta alokairuen iragarkiak hara bideratzeko, Eskola Politeknikora, hain justu (943794700).

ADINEKOEKIN

Eta, aurten beste aukera bat

ere jarri dute abian udalak, Mondragon Unibertsitateak eta Diputazioak: ikasleek eta pertsona nagusiek elkarbizitza eta etxebizitza konpartitzea. Eta aukera hori erabiltzeko deia ere egin du Iñaki Madinabeitia.

Batez beste, Mondragoen 600 ikasletik gora bizi dira eta aurreko ikasturtean 100 bat lagun Biteri Ikastetxean sartu nahi, baina ezinean geratu ziren.




Danona

KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06



TXIRRITA

Taberna

Garagardo ona
Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35

Derrigorrezko desjabetzea Garaia proiektua egiteko

Hilero moduan, atzo udalbatzarra elkartu zen udaleko areto nagusian. 27 gaiko zerrenda zuten lantzeko, tartean, zenbait taldek aurkeztutako mozioak.

Senideak elkarrekin, esaterako, herriko presoaren egoera salatzeko mozioak aurkeztu zituen, bereziki, Jon Agirre Agirianoena eta Unai Parotena. Horrekin batera, Manuel Jimenez eta Santiago Oleagaren hilketak, Gorka Landabururen kontrako atentatua eta azken egunotan gertatutako bestelakoak gaitzesteko mozio bana ere aurkeztu zuten EAJ eta EA alderdiek.

BESTELAKOAK

Eta jorratutako bestelako gaien artean, Garaia egitasmoarekin lotutakoak landu zituzten. Horrela, bada, proiekturako beharrezko diren lurrak gordetzeko, udalak hartutako erabakiari jarritako berraztertze errekurtso bi

atzera bota edo ez eztabaidatu zuen udalbatzarrak; batetik, "Maderas Acha" izeneko enpresak jarritakoa, eta bestetik, Juan Mari Ugartek jarritakoa. Horrez gain, eta aurkeztutako alegazio eta errekurtso guztiak aztertu eta erabaki eta gero, Uribarri auzoan Garaia egitasmorako beharrezkoak diren lursailak desjabetzea proposatu du Hirigintza batzordeak.

KOBRATU BARIK

Bestalde, Jose Mari Urizar "Ametzu" zinegotziak idatzi bat aurkeztu zuen. Esaten zuen bertan behera utzi gura duela zinegotzi izateari eskaintzen dion bete-beteko arduraldia. Hortaz, bere lana egiten segituko du, baina ez du dirurik jasoko udaletik.

ENTZIERROA

Bestelako gaien artean, sanjualetan entzierroak antolatuzeko



udal onespene eskaera ere landu zuten zinegotziek. Kultura batzordearen proposamena izan zen ekainaren 24, 25 eta 26an "entzierroak eta zezen ikuskitzuzun tradizionalak ospatzeko onspena emandezan" eskatzea.

FAGOR-UDALA

Eta, Fagor ere hizpide izan zen. Hain justu Garagartzan dagoen lantegia. Hirigintza Batzordeak Fagorren eta udalaren artean hitzarmena sinatzeko

proposamena egin zuen. Onartuz gero, Fagor Garagartzak aurrera egin ahal izango du aipatutako auzoan egitea nahi duen egitasmoa: lantegia handitu nahi du, aparkaleku gehiago eraiki eta lantegira sartzeko biribil bat egin, besteak beste.

Kontuak kontu, informazio hau idazteko orduan oraindik ere bilkura egiteko zegoen, hortaz ez dago jakiterik zeintzuk izan diren zinegotzien erabakiak.

LHT geratzeko ekimenak

Abiadura Handiko Trenaren aurkako asanbleak batzen dituen AHT Gelditu Elkarlana izeneko taldeak zenbait ekimen antolatu ditu ekainerako. Adibidez, eskualde guztieta-ko udaletan mozioak aurkezten ari dira. Euren nahia da udalek bat egitea Lastertasun Handiko Trena dela-eta aipatutako taldeak egindako eskaerekin: batetik proiektuaren moratoria eskatu diote Sustapen

Ministerioari. Eta bestetik, trenaren Lurraldearen Arloko Planari errekurtsoa aurkezteko asmoa ere badute. Mondragoeko taldeak adierazita-koaren arabera, atzoko osoko bilkuran aurkeztetokan ziren mozioa.


Horrez gain, prentsaurrekoak eta kale bilkurak ere iragarri dituzte; tartean, Mondragoera ere etorriko dira ekainaren 11n.



Beroari aurre

Izugarrizko beroa egin du oraingo astean eta bakoitzak horri aurre egiteko eskura dituen erremedioak erabiltzea besterik ez du izan. Hain justu,

horixe egin du Umezaintzak. Ureztatzeko mahuka eta igerilekua jolaslekura atera eta haurrak ederki asko ibili dira.

 **Gambrinus**
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82



AINGERU ALA DEABRUTXO?

Aingerutxo aurpegia bai, baina a zer-nolako piuraz agertu zitzaigun aurrekoan! Baina ez da bere azken bihurrikeria izango: orain benetako aingerutxo bat sorgindu eta aldarera eramango du ekainaren 2an! Aingerua beharrean, deabrutxoa ote? Zorionak, bikote!



HOBETO IRRIST EGITEKO!

Santa Barbarako parkean umeak ikustera ohituta gaude, baina lehengo egunean, ume helduxeago hauek aurkitu genituen. Ez zebiltzan, ordea, denbora-pasan, konponketa lanak egiten baino. Hurrengo joaten direnek eskertuko dute, bai, hauen lana!



INFORMAZIOA:
San Roke Auzoa, 1. ELGOIBAR, Gipuzkoa
Tel.: 943 744 132. F.: 943 744 153
Posta elektronikoa: amaia@fmh.es
www.fmh.es

2001-2002 ikasturtea

HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA (A eta D ereduak)

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Industria ekipoen mantentze lanak


ERDI MAILA (A eta D ereduak)

- Mekanizazioa

Ekainaren 5ean atek zabalik, 19:00etan




Izena emateko epea: ekainaren 1etik 12ra, biak barne



ARRANTZA SASOIA HASI DA!

Ramon Ramila arrantzale amorratua da. Eta zaletasun horrek fruitu ikusgarriak eman dizkio oraingoan: 1.110 gramoko amuarraina eta 2.165 gramoko lutxo harrapatu ditu. Ez da gutxi, ez, horixe!



IRRIBARRERIK ONENAREKIN

Arizmendi ikastolako DBHko 2. mailako hainbat ikasle Madril aldean izan berri dira eta han igarotako lau egunen adierazgarri, aurpegi alaia erakutsi gura izan zuten kamera aurrean.



1951KO KINTOAK

1951n jaiotako 86 lagun hauek elkartu ziren maiatzaren 12an ospatutako kinto bileran. Meza izan zuten lehenengo, gero Monterronen erretratu eder hau atera zuten, eta azkenik, Mondragon hotelean bazkaldu zuten, bazkalosteko dantzaldi eta guzti.


LUXUZKO AURKEZPENA

Felix Iñurrategi mendi eskolaren aurkezpena egitera etorri ziren bi lagun hauek Arrasate Irratira: Alberto Iñurrategi eta garraiatzaile pakistandar bat. Jon Lazkanok, aldiz, telefonoz egin behar izan zuen irratiarekin bat.



HURRENGOAN ZER?

Geroago eta gauza harrigarriagoak galtzen ditugu egunotan. Honako alfonbra eta gortinak agertu dira orain Udaltzaingoa. Haize bolada bortitzen batek eramanak, edo gustuekin bat ez zetorren opariren baten ondorioak izango ote dira?



SAN JOANAK BADATOZELA!

San Joanak badatoz, eta eurekin batera, urtero legez, jaietako kartela. Hauxe aukeratu dute kartel lehiaketako irabazle, aurkeztu ziren 22 lanen artean. Atarratz Etxebarria eta Iker Aranburuzabala 25 urteko arrasatearrekin egin dute, ordenagailuz, eta dragoia eta sua agertzen dira, jaien bizitasunaren adierazgarri.



"GUTI"REKIN BERRIKETAN

Ez, ez da *Hasiberriak Abian* telesaileko grabaketa estudioa, Arrasate Irratia baizik. Han, *Iluntzean Berriketan* saioan, elkar-tu ziren Almeneko ikasleak eta telesail hartako Gorka Igartua urretxuarra, "Guti".

60-80

60 metro luze eta 80 tona. Horiek dira garabi puska honen neurriak. Joan den astelehenean ekarri zuten Ferrerías kaleko 42. zenbakira, zertarako, eta beste garabi bat desmuntatzeko. Bigarren hau desmuntatzeko beste bat ekartzen badute, kabituko ote da kalean?



DANIEL MONTALBAN (IRAKASLE OHIA)

«Aprendizen Eskola bere

Aprendizen Eskola handia izan da Mondragoen. On Jose Maria Arizmendiarraren esanari jarraituz, Cerrajerak eskola jarri zuen etorkizunean kooperatibismoan jardungo zuten gazteak hezteko. Daniel Montalban fraide viatorista argentinarrak 87 urte ditu, eta horietatik, gutxi eman ditu Mondragoen, baina tarte horretan Aprendizen Eskolako irakasle izan da, besteak beste, eta hemen jasotakoak hain izan dira sakanak Danielendako, hiru urterik behin Mondragoera etorri eta bere ikasle izandakoak bisitatzen dituela. Hauxe kontatu digu:



— Zelatan iritsi zinen Mondragoera, jaiotzez argentinarra izanik?

— Erlijiosoa naizenez, nire kongregazioak bidaltzen nauen lekura joan behar naiz. 1953an, Mondragoera bidali ninduten eta kongregazioak Eskolako irakasle izendatu ninduen, Juan Zubizarreta anaia zena ordezkatzeko.

— Zenbat denbora egon zinen Mondragoen?

— Hamar bat urte, Eskolan eman nuen denbora berea.

— Zein izan zen zure lana?

— Umeen heziketa moralala lantzen nuen, enpresako bestelako irakaspenen osagarri moduan. Garai hartan egon ginenak gerora enpresa han-

— Bereziki, berritasun handia zen, hemen ez zegolako industriako lan-heziketarako bestelako eskolarik, eta Cerrajerak bere langileak hezteko beharra ikusi zuen (bai arlo moralean baita profesionalean ere) eta horrelaxe sortu zuen Aprendizen Eskola.

— Zer oroitzapen utzi dizu zuri Eskolak?

— Oso-oso ona. Batez ere ikusita hiru urterik behin Mondragoera noanean eta berriro ere nire ikasle izandakoak ikusten ditudanean, oso-oso ondo hartzen nautela. Eta horrekin batera, izugarri pozten nau ikusteak oraindik ere Aprendizen Eskolak zutik irauten duela. Jainkoari esker ematen dizkiot oraindik zutik ikusten utzi didalako...

«Umeen heziketa moralala lantzen nuen, enpresako bestelako irakaspenen osagarri moduan »

dien zuzendari izango zirenen irakasle izan ginen: Ormaetxea, Gorroñoigoitia, Alberto Ruiz de Azua... Lehenengo titulu profesionalak guk eman genituen (industria peritua...); izan ere, Eskola hazten zegoen orduantxe.

— Zein esanahi zuen Aprendizen Eskolak jendearendako?

Horrez gain, Markaide eta Lasa gogoratzen ditut, nirekin irakasle izandakoak; Ignacio Chacón, Aprendizen Eskolako orduko zuzendaria...

— Zure ikasle izandakoak ikustera etortzen zara orduan...

— Bai, hiru urtetik behin. Jeneralean ni ez naiz ia-ia ino-

eritasun handia izan zen »

rekin gogoratzen, hainbeste ziren (hamar bat belaunaldi pasatu dira ni han nengoela) eta hainbeste aldatu dira denborarekin... Eurak akordatzen dira nirekin, eta oso hunkigarria da hori.

Horrez gain, jakina, hara joaten naizenean, nirekin egondako apaizak ere bisitatu ditut.

— Baduzu Eskolako oroitzen berezirik?

— Bada, gauza asko egin genituen Eskolan, baina, jeneralean, industriarekin lotutako ekimenak izaten ziren. Horrez gain, beste gauza batzuk ere egin genituen, jakina. Gogoratzen dut, adibidez, herririk herri jotzen ibiltzen zen musika banda bat sortu genuela Eskolan, Cerrajerako zuzendariak asko maite zuen eta musika... UCEA (Unión

Cerrajera Escuela de Aprendices) izeneko futbol taldea ere sortu genuen, eta makina bat zeresan ere eman zuen.

Bestalde, irteera asko egin genituen eskolatik: Bartzelonara, Madrilera... enpresak ikustera. Gogoratzen dut horrelako irteeretatik, guztiok poz-oz itzultzen ginela.

Baina, bereziki, gogoratzen dut zelan orduan Eskolako ikasleak industria lehiaketa guztietara joaten ziren eta beti lehenengo sariak eskuratzen zituzten. Hori oso pozgarria izaten zen.

— Eta orain Arrasatera zatozenean, batez ere, zein aldaketa igarri duzu gehien?

— Pena ematen dit, lehen baino askoz ere politagoa eta atseginagoa ikusten dut eta (barreak)... ni hor nengoenean hori guztia hazten zegoen.

« Orduan Eskolako ikasleak industria lehiaketa guztietara joaten ziren eta beti lehenengo sariak eskuratzen zituzten »

— Orain Txilen bizi zara?

— Bai, eta halaxe jarraituko dut osasuna dudan artean. Viña del Mar izeneko leku batean bizi naiz; bizi-modua aldatzeko ariketa espiritualak egin nahi dituen jendea hartzen duen etxe baten arduraduna naiz; hortaz, dagoeneko ez nabil irakas-kuntzan.

— Eta beti etorri izan

zara hiru urtean behin?

— Bai, eta orain arte ez dut inoiz kalerik egin.

— Zer esango zenieke mondragoetarrei?

— Bada, asko poztu naitzela eurak ikusteaz eta ni han egon nintzeneko oso oroitzapen ona gordetzen dudala; eta, jakina, izugarri eskertzen dut Mondragoen eman izan didaten harrera ona.




URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

Txartel bateratuen frogak porrot



Garbiketa sektoreko lan uztea dela eta, arrasatear asko Aretxabaletara joaten dira bainua hartzera.

Joan den maiatzaren 1etik aurrera, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Oñatiko udal kirol zerbitzuak eta kiroldegiak, abonatu txartel bateragarria sortzeko ideiarekin, froga egiten ari ziren. Epe horretan, Debagoieneko edozein abonatu gainerako kiroldegiak erabiltzeko aukera izan du. Garbiketa sektoreko lanuztea dela-eta, Arrasateko kiroldegiko igerilekua itxita egon da, eta arrasatear askok ederki aprobetxatu du txartel bateratua. Arrasatearrek, auke-

ra izanik, Aretxabaletara jo dute igerian egitera, eta horrenbestez, froga horretan jaso beharreko datuak ez dira baliagarriak. Bestalde, Aretxabaletako kiroldegian jende ugari elkartzen da, eta hangoak kexatu egin dira. Horren ondorioz, Aretxabaletako Udalak aurrez finkatutako froga epea bertan behera uztea erabaki du, garbitzaileen lanuztea amaitu arte, behintzat. Hori dela eta, ekainaren 1etik aurrera, Arrasateko abonatuak ordaindu egin beharko

dute Aretxabaletako kiroldegira sartzeko.

EZIN IGERILEKUAK IREKI

Aurten, kanpoko igerilekuen irekitze eguna aurreratzeko asmoa zegoen. Hala ere, garbiketa sektorearen lanuzteak atzeratu egingo du irekitze egun hori. Igerilekuak garbitzeko gutxi geratzen bada ere, grebak irauten duen bitartean ezinezkoa da kanpoko igerilekuak irekitzea, eta tamalgarria da azkenaldiko beroa igerilekuko ura berotze-

ko ez aprobetxatzea. Bestalde, barruko igerilekua ere, lanuzteak irau bitartean, itxita egongo da; oraingoz, kantxako aldagelak bakarrik erabil daitezke, eta kantxako aldageletatik barruko igerilekura igarotzeko kiroldegi erdi gurutzatu behar denez, ez da posible igerilekua zabaltzea. Hortaz, bainuaz gozatzeko itxaron egin beharko dugu oraindik, eta garbitzaileen arazoak irtenbide argi bat ez daukanez, badirudi luzerako izango dugula.

Diru asko jokoan Monte tabernako porran

Aurten ere, txirrindularitzako lasterketa nagusiek arrasatearren sosa mugiaraziko dituzte, eta batek baino gehiagok udako oportetarako asmoak gutziz aldatuko ditu. Arrasaten, Monte tabernako porra da ezagunena, eta aurten ere sekulako dirutza banatuko du saritan. Giroan 275 lagunek egin dute postura, eta esku hartzaile bakoitzak, 5.000 pezetaren



truke, hamabost ziklistaz osatutako taldea eratu du. Guzti-

ra 1.375.000 pezeta daude saritan banatzeko: lehenak 550.000 pezeta irabaziko ditu, bigarrenak, 343.000, eta hirugarrenak, 171.000. Horrez gain, lehenengo hamarrek ere diru-saria jasoko dute. Tourrean, aldiz, Monte tabernako ustez, 500 esku hartzaile baino gehiago izango dira, hortaz, atera kontuak sariak zenbatekoak izango diren.

Pilota jaialdia Uarkapen

Gaur, ekainak 1, egubakoitza, gaueko 10:30ean:

Capellán - Goñi III
vs
Gonzalez - Lasa III

Berraondo - Eulate
vs
Baleztena - Sukia

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Lore

Olarte, 10 • ARRASATE
Tel.: 943 79 52 50



- Gorputz eta aurpegi tratamenduak
- Drenaje linfatikoa
- Depilazio elektrikoa
- Depilazioa laser bitartez
- Osteopatia
- Kinesiologia
- Masaje terapeutikoa
- Kirol masajea

Zure gorputza zainduz



SOLARIUMA (etzana eta zutikakoa) • MASAJEA • DEPILAZIOA

Gozatu eguzkiaraz



aurretik



ondoren



Herriko pilotariak nagusi Donostian


Etxeko pilotariak herri arteko txapelketan aurrera egiteko aukerarik ez badute ere, ez dute amorerik eman, eta aurreko zapatuan Arrasateko hiru bikoteek erraz irabazi zieten donostiarrei.

KADETETAN IZERDI EGINEZ

Aspek eta Agirrek arerio gogorak izan zituzten, eta nekez gailendu ziren. Hasierako tantoetan Agirre atzelariak aurrean jokatu zuen, eskua ez mintzeko, baina galtzen hasi eta nor bere postura bueltatuta norgehiagokari aurre egin zioten. Aldaketak on egin zion etxeko taldeari, eta Asperen sakeekin eta Agirreraren segurtasunarekin, aldea hartu zuten. Donostiarren aurrelaria tantoa aurrean amaitzen saiatu zen, eta tanto politak ere egin zituen, baina arrasatearrek atzeko aldean irabazi zuten partida.

GAZTE MAILAKOAK ERRAZEGI

Gazte mailako partiduan Arra-



sateko Zuazuak eta Uribarrenek ez zuten lan handirik izan eta 22 eta 4 gailendu ziren. Zuazuak, 22 tantoetatik, 14 sakez lortu zituen, eta Uribarrenek pilota ozta-ozta ukitu zuen. Tamalgarria Donostiaraino joan eta horrelako aretoa aurrean izatea.

NAGUSIAK BETI AURRETIK

Partidua gazte mailakoa baino parekatuagoa izateaz gainera, ikusteko ere polita izan zen. Arrasateko Zugastik eta Zuazubiskarrek Donostiako Dominguezen eta Baezen aur-

ka neurtu zituzten indarrak, eta aurrelarien artean lehia ikusgarria izan zen. Beroa izan zen protagonista nagusia, baina pilotariak ez zuten amorerik eman. Pilotakada luzeak tartean, atzelari donostiarrari eskua mindu zitzaion, eta hori ederki aprobetxatu zuten etxekoek. Aurrean jokatu beharrean, lan guztia atzelariari eman zioten, eta etxeko bikoteak esperientzia nahikoa daukala erakutsiz, 22 eta 16 irabazi zuen. Itzuliko partidak gaur, egubakoitza, iluntzean jokatuko dira Uarkapeko pilotalekuan.

Hainbat lasterketa

Aurreko asteburuan, Dorleta-ko Amako txirrindulari gazteek hainbat lasterketatan esku hartu zuten. Alebin mailakoek Elgoibarren izan zuten hitzordua, eta Julen Galiano, lasterketa buruan izan eta gero, laugarren helmugaratu zen. Kadeteek erlojupekoa izan zuten domeka arratsaldean Ordizian. JMA taldea Mikel Arana, Mikel Arregi, Mikel Katania, Jon Lete eta Unai Vilumbralesek osatzen dute, eta taldeak izan dituen lesioak eta modalitate horretan entrenatzeko dituzten zailtasunak kontuan hartzen baditugu, ontzat jo dezakegu JMako mutilek egindako lana.

Kadete mailakoek hurrengo astean atsedean hartuko dute, eta hurrengo lasterketa Oñatin izango da, ekainaren 9an hain justu ere.

GAZTE MAILAKOAK

Zapatuan, Anoetan egin zen gazte mailako lasterketan, 120 txirrindulari elkartu ziren, eta han ere izan genuen ordezkariarik. Lasterketa oso gogorra izan zen, eta 45 txirrindularik lortu zuten helmugaratzea. Lasterketan hainbat ihesaldi izan ziren, eta Aitor Elortza izan zen protagonistetako bat. Azken kilometroetan ihes egin eta helmugan bertan harrapatu zuten. Aitor Frutos bikain aritu zen. 15. postuan helmugaratuta. Aitor Elortzak eta Raul Blazquezek ere lan ona egin zuten, eta hurrengo taldean helmugaratu ziren.

Domekan Ordizian egin zen erlojukontrako proban Aitor Frutosek eta Raul Blazquezek lan ona egin zuten; taldekako proban hamabigarren sailkatu ziren. Datorren astean deskantsua izango dute, eta hurrengo lasterketak Legorretan eta Eibarren izango dira, ekainaren 10 eta 11n.

Mendi Asteari amaiera bikaina



Zapatu goizean, mendi bizikleta irteera izan zen.

Aurreko asteburuan mendira egindako irteerarekin amaitu zen Besaidek antolatutako Mendi Astea. Aste barruan hitzaldiak izan baziren protagonista, asteburuan kanpoko

ekintzak izan dira nagusi eta eguraldia ere lagun izan dute ibilaldiok giro bikainean egiteko. Zapatu goizean, mendi bizikleta irteera izan zen, eta gutzira hogeit bat lagun elkar-

tu ziren. Musakolako kiroldegitik irten eta Gesalibar, Kobate, Teilamendi, Etxaugen, Kurtzeta eta Untzilla igaro ostean, berriro ere Arrasatera itzuli ziren, hantxe hamaiketako bikaina egiteko. Domekan, berriz, bizikleta alde batera utzi eta mendi ibilaldia egin zuten. Goizean goiz irten ziren, 07:30ean, eta Arantzazu, Elgeako mendilerroa eta Dorletatik egin zuten itzulia. Ezbairik gabe, Mendi Aste interesgarria aurten Besaide Mendizale Elkarteak antolatutakoa.

Bikoteak

A Taldea			B Taldea		
	jok.	punt.		jok.	punt.
Iñigo - Isturiz	5	4	Gaizka - Boludo	3	5
Toribio - Pi	4	8	Gaizka - Ugutz	2	4
Eimon - Zarre	2	3	Bolingazo - Bex	2	3
Haritz - Urko	3	3	Markel - Unai	1	1
Bolingazo - Karni	3	3	Otuto - Aranburu	2	1
Muxi - Ulli	1	2	Pitu - Mutxin	0	0
Saizar - Pon	1	1			
Joseba - Josu	1	1			

C Taldea			D Taldea		
	jok.	punt.		jok.	punt.
Aitor - Oier	3	6	Gorka - Haimar	4	8
Asier Urtzi	3	5	Gari - Igortz	4	6
Txelo - Xabi	3	4	Carlos - Unai	4	5
Bermu - Biu	1	1	Kasko - Iraultza	3	4
Lur - Lagar	1	1	Carboni - Titino	2	3
Bull - Pirulo	1	1	Asier - Gorka	2	3
			Argider - Iban	1	2
			Txetxi - Skitx	2	2

Arauk

-Partiduak 22 tantora izango dira
 -Txapelketa lau t'erdian jokatu da
 -Lehen aldia ez da epailerik izango
 -Taldea bakoitzetik lehena sailkatuko da
 -Berdinketa kasuan, "Tantoavantage"-a izango da
 -Kale eginez gero, kanporatua izango da
 -Orduategiak errespetatzeko daude

Hurrengo partiduak:

Ekainak 2, zapatua

Muxi - Ulli	vs	Haritz - Urko	10:00 Uarkape
Iñigo - Isturiz	vs	Joseba - Josu	10:30 Uarkape
Eimon - Zarre	vs	Bolingazo - Karni	11:00 Uarkape
Toribio - Pi	vs	Saizar - Pon	11:30 Uarkape
Txetxi - Skritx	vs	Carboni - Titino	12:00 Uarkape
Gorka - Haimar	vs	Carlos - Unai	(jokatuta)
Kasko - Iraultza	vs	Argider - Iban	13:00 Uarkape
Gari Igortz	vs	Asier - Gorka	13:30 Uarkape
Toribio - Pi	vs	Iñigo - Isturiz	(jokatuta)
Eimon - Zarre	vs	Muxi - Ulli	15:30 Uarkape
Saizar - Pon	vs	Joseba - Josu	16:00 Uarkape
Haritz - Urko	vs	Bolingazo - Karni	16:30 Uarkape

Ekainak 3, domeka

Lur - Lagar	vs	Aitor - Oier	10:00 Uarkape
Txelo - Xabi	vs	Bull - Pirulo	10:30 Uarkape
Bermu - Biu	vs	Asier - Urtzi	11:00 Uarkape
Gaizka - Ugutz	vs	Markel - Unai	11:30 Uarkape
Gaizka - Boludo	vs	Bolingazo - Bex	(jokatuta)
Otuto - Aranburu	vs	Piru - Mutxin	12:30 Uarkape

Emaizak

Gaizka - Boludo17
 Gaizka - Ugutz 22

Asier - Urtzi 22
 Bull - Pirulo 3

Txelo - Xabi 5
 Aitor Oier 22

Toribio - Pi 22
 Bolingazo - Karni 5

Iñigo - Isturiz 22
 Haritz - Urko 7

Txetxi - Skritx 13
 Carlos - Unai 22

Gorka - Haimar 22
 Gari - Igortz 15

Kasko - Iraultza 14
 Asier - Gorka 22

Gorka - Haimar 22
 Asier - Gorka18

Gari - Igortz 22
 Carboni - Titino 20

Iñigo - Isturiz 22
 Bolingazo - Karni 10

Toribio - Pi 22
 Haritz - Urko 9

Emaizak

Iriztu 8 - AC Surcos 6
 Rayo Aldeano 3 - Kom Alpargat 2
 Aurrera Bolie 4 - Irati STS 6
 Kamasutra 2 - YK Azkena 4
 Txap Dribling 3 - Usotz Potroak 5
 Pepelus.com 3 - Bikain akad 4
 AT Celaya 1 - IKP 6
 Etxerat 5 - Goma2 9

Sailkapenak

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Iriztu	3	2	1	0	19	15	5
Rayo Aldeano	3	2	0	1	11	10	4
AC Surcos	3	1	0	2	14	16	2
Kom Alpargat	3	0	1	2	11	14	1

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Irati STS	3	3	0	0	16	9	6
YK Azkena	3	1	0	2	9	10	2
Aurrera Bolie	3	1	0	2	13	15	2
Kamasutra	3	1	0	2	11	15	2

C taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Txap Dribling	3	2	0	1	16	13	4
Bikain akad	3	2	0	1	14	14	4
Pepelus.com	3	1	0	2	9	10	2
Usotz Potroak	3	1	0	2	9	11	2

D taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
IKP	3	2	0	1	15	8	4
Goma2	3	2	0	1	21	15	4
Etxerat	3	2	0	1	16	11	4
AT Celaya	3	0	0	3	4	22	0



EZUSTEKORIK?

Badirudi talde gehienetan ez dela sorpresa handirik izan, eta aurreko asteko taulei begiratzen badiegu, goiko tokietan zeudena sailkatu dira. Hala ere, izan da salbuespenik: seguru Etixerat taldeko jokalariek ez zutela espero kanpoan geratzerik, eta argi geratu da txapelketa honetan azken une arte ezin daitekeela lasaitu. Bestalde, antolatzaileek lan nahikoa izan dute nortzuk sailkatuko diren erabakitzeke, eta

kontuak behin baino gehiagotan egin dituzte, izan ere, puntu berdinketa asko izan denez, azkenean gol-aldeari esker erabaki da zeinek egingo duen aurrera. YK Azkenak garaipe batekin, hau da, bi punturekin, aurrera egiteko txartela lortu du, eta beste batzuk lau punturekin kanpoan geratu dira. Txapelketako azeri zahar bat, Irati STS, bikain aritu da, kanporaketako partidu guztiak irabazita. Aurten, final-laurdenetan bi talde atzeritar ditugu, Rayo Aldeano aramio-

arrak eta IKP iurretarrak, eta argi erakutsi dute finalean egon daitezkeen bi talde direla. Kanpotarren partiduaz gozatzeko zapatu arratsaldean hurbildu beharko zarete Zaldibarrera. Aramaioarrek orain arte maila ona erakusten ari diren STStarren aurka jokatu beharko dute, eta Iurretakoek C taldeko bigarren sailkatuaren aurka neurtuko dituzte indarrak. Ezin ahaztu zapatu goizean talde mondragoetarrak izango direla protagonistak Zaldibarren.

Hurrengo partidak / Final laurdenak

Ekainak 2, zapatua

Zaldibar

11:50 Txapime Dribling - Goma 2
 13:00 Iriztu - YK Azkena

16:50 Rayo Aldeano - Irati STS
 18:00 IKP - Bikain Akademia

Epailea

Antolakuntza
 Antolkauntza

Antolakuntza
 Antolakuntza



Mireia Rivera Aker dendakue

Hogeita lau urteko gazte hau Administrarritza ikesten hasi zan, baiñe argi euken bizibidie beste nunbaitetik lortu biharko euela. Oin dala hiru urte tatua-jien munduan murgilddu zan, eta oin gutxi negozio propiue sortu dau.

Esaidazu guzur bat.

Tatuatziak ez dau miñik egitten.

Amets bat.

Hegaz egittie.

Amesgaizto bat.

Bat baiño gehixago dauket.

Egin dozun azken blaije?

Nafarroara.

Txartel horixe, zeñi?

Jende askori.

Eta txartel gorrix, zeñi?

Ez naz izengo ni txartel gorririk ataraten hasiko dana.

Film bat? Liburu bat? Disko bat?

El Bola/ El señor de los anillos/ The doors.

Gustora egitten dozu zeure lana?

Bai.

Tatuagille ez baziña, zer izengo zitzaite?

Elegiduteko aukera haundirik be ez dogu izaten.

Animalixa izetekotan, zer?

Zaldixe.

Drogak legeztautuko zenituzte?

Bai, batzuk bai.

Eta prostituziñue?

Nahiko legeztaute dago.

Tabernetako poteue ala diskotekak?

Tabernak.

Etxeko zapatillak ala zapatak?

Etxeko zapatillak.

Zer gustetan jatzu Arrasateetik?

Gauza asko, pozik bizi naz hemen.

Alkate izengo baziña, zer hobetuko zeunke?

Etxebizitzak.

Eta lehendakari izengo baziña?

Gauza asko aldatu biharko lirake ni lehendakari izeteko.

Bizio bat?

Lo egittie.

Zer erizten dotsezu Arrasate Press Goienkari barruan sartziari?

Arrasate Pressko atalak ez badie aldaketan, ondo pentsetan jat.

Zer gehituko zeunke Arrasate Pressen? Eta zer kenduko zeunke?

Dagoen moduen itxiko neuke.

Gustoko mendi bat?

Udalatx.

Bizitzera hiri batera juetekotan, nora?

Ez jaten gustauko hiri batera juetie, Arrasate nahikue hiri da.

Zure bizitzan ezagututako pertsona interesgarri bat?



"Jeneralien jende gaztie tatuetañ da, baiñe aspaldixen jente nagusixe be etorten da"

Asko dagoz.

Eta ezagutu nahiko zeunkeena?

Ez jat iñor okurriduten.

Telebista saio bat? Irratsaio bat?

Ez dot irrati eta telebista askorik ikus-entzuten.

Arropa marka bat?

Erosue dana.

Zertan gastauko zeunke dirua?

Biaje baten.

Jasaten ez dozun gauza bat?

Gauza asko... Gezurak, adibidez.

Tatuajiena moda hutsa da ala hori baiño askoz be gehixago da?

Geuretako askoz be gehixago da, azken baten artie da, moda hutsa ez da bizi danian azalian erueten.

Antzerkia, ikasteko modu egokia

Antzerkiak bertute asko du, eta horietako bat, eta ez txikiena, honakoa: hezkuntzarako bide egokia izateaz gainera, ikasleek gustura asko hartzen dute.

Hori ondo dakite herriko ikastetxeetako arduradunek. Horregatik, urtean, antzerkiarekin zerikusia duten ekintza asko antolatzen dute. Geroago eta sarrago, gainera, ikasleak eurak dira protagonistak: antzeztu ez ezik, antzezlana-rekin zerikusia duten bestelako xehetasunen ardura ere hartzen dute. Horren bi adibide izan ditugu eta izaten ari gara egunotan: Erguin herri eskolako antzerki astea eta Txatxilipurdiko Txatxiartisten emanaldia; azken hori ekainaren 2an izango da, Gazteluondon.

TXATXIARTISTAK, "EGUZKIAREN BILA"

Txatxiartistak taldea 11 eta 12 urteko 19 lagunek osatzen dute. Orañ dela hiru urte osatu zen, Arizmendik eskola orduetatik kanpoko ekintzak antolatu zituenean; baina ikasle horiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara pasa zire-



Hona hemen Txatxiartistetako batzuk.

nean, ekintza horietatik kanpo geratu ziren. Txatxilipurdik antzerki saio haiekin jarraitzea erabaki eta 19 gaztetxo elkartu zituen. Urtero antzezlana bat taularatu izan dute, eta oraingo honetan, Eguzkiaren Bila musikala eskainiko dute. Gustura asko dabilzan arren, aktore lana bizibide moduan ez luketela hartuko onartu

digute gaztetxook.

Talde horri laguntzen, Txatxilipurdiko Itziar Rosado eta Mikel Irastorza begiraleek dihardute, eta garbi dituzte antzerkiak hezkuntzarako dakartzan onurak: "Lotsa galtzen da, hartu-emanak sendotzen dira, baita erantzukizuna ere; eta, jakina, euskara lantzen dute".

HIZKUNTZA LANDU

Hiru egunean, Erguin herri eskolako ikasle guztiek hainbat antzezlana eta abesti eskaini dituzte, urtero egiten duten moduan; lehenik, Arrasateko herri eskolendako, eta gero, aita-amendako; baina aurtun, berezitasun moduan, hizkuntzarekin zerikusia duten bestelako alderdiak landu dituzte. Antzezlana gidioak aztertu eta prestatu dituzte, eta beste testu mota batzuk ere landu dituzte: publizitatea, esaterako. Horrez gain, hainbat aktoreekin berbaldiak izan dituzte Erguin herri eskolan.

Eskolako zuzendariak dioenez, "antzeppen eta abesti guztiak euskaraz izan dira, hortaz, hizkuntzan trebatzeko aukera izan dute, eta testu mota desberdinetan hizkuntza zelan erabili behar den ikasi dute". Gainera, antzerki asteko iragarkiak, esku-orria eta gonbidapenak ikasleek eurek diseinatu eta prestatu dituzte.



Erguin Herri Eskolako txikiek primeran pasa zuten.

Dragoiaren eta estraperloaren bidetik

Mugarritz mugarri, Arrasate ezagutzen izeneko egitasmoaren barruan, aurtengo lehenengo irteera antolatu du AEDk datorren domekarako, ekainak 3: *Dragoia eta estraperloaren bidetik, porlanezko garaietara* du izena.

Aldi oro, Arrasateko paisaia eta historia ondareak uztartzen dituen ibilaldiren bat aukeratzen dute, eta oraingoan, Garaia proiektuak eragina izango duen guneak bisitatuko dituzte. Horrela, proiektu horrek eremu eta baserri jakin horietan zein ondorio izango dituen azalduko da. Uribarri, Murugain eta Mandoin aldetik ibiliko dira.

Mugarritz Mugarriko irteretan ohikoa den bezala, hainbat bitxikeriaren berri jasoko da: besteak beste, Arrasateko herensugearen kondaira. Gai-



nera, inguru haietako iturri eta ermita interesgarri batzuk ere ikusiko dituzte.

ARINA

Ibilbide arina izango da: bospasei kilometro, aldapa handi barik. Ibilbide guztia oinez egin ahal izango da. Arbola-

petan elkartuko dira, 09:30ean, eta joan gura duenak han azaldu besterik ez du. Bazkalordurako bueltan izango da taldea.

Ibilaldi horiek Arrasateko baserri auzoetako bideak liburuan jasota daude, eta AEDk moldatu egiten ditu.

Arrasate Musikalek konboa sortuko du



Datorren ikasturterako bere aukera zabaldu gura du Arrasate Musikalek, konbo edo musika talde bat osatuz. Bateria, gitarra, baxu elektrikoa eta teklatua jotzen dakiten lagu-

nak behar dituzte horretarako, nahiz eta instrumentu horien eskolak ere emango dituen musika akademia horrek. Helburua da Arrasate Musikaleko konboak musika emanal-

diak egin ahal izatea.

BALETA

Konbo hori sortzea izango da datorren ikasturterako Arrasate Musikalek eskainiko duen berritasun nagusia. Baina matrikulazio epea zabalik dago -ekainaren 22a arte- eta oraindik berri samarrak diren hainbat ikastaro ere aukeran daude: besteak beste, informatika musikala, orain bi urte ezarri zena, edo balet klasikoa. Azken hori bost urtetik aurrerako umeendako da.

Horrez gain, urtero moduan, instrumentu klasiko gehientsuenak eta modernoetarik asko ikasteko aukera ematen jarraituko dute.

Sexuaren gaineko komedia lamain

Iamai kafetegiko arduradunek zuzeneko emanaldien aldeko apustua egin dute. Iaz, apirilean, kafetegia zabaldu zenetik hona, sarri antolatu izan dituzte musika edo antzerki emanaldiak. Oraingoan ere antzezpenari tokatu zaio txanda, Gasteizko Detritus Teatrus taldearen eskutik. Ekainaren 1ean, gauerdian, izango dira Kontzeziño kaleko kafetegi horretan. Orain hurrengo, *Detritus Corazón* aziozko lana eskaini zuten han.

"LARRUJOTZEAZ"

Oraingoan, sexuaren inguruko komedia eskainiko digu Detritus Teatrus taldeak: "Larrujotzeaz berba egin gura dugu: hemen gutxi eta gaizki egiten delako", diote antzezlaneko pertsonaiek. Horren zergatia aurkitu guran, sexu aholkularitza antolatuko dute. Euren ustez, umezaroan daude erantzun guztiak: horregatik, istorio xeble horrek *Gu-Gu Txupete* du izenburua. Iku-si eta entzun egin behar zelako aurkikundeak egiten dituzten!

Detritus Teatrus taldea orain dela hiru urte sortu zen, eta honakoa bigarren muntaia dute. Javi Huete eta Belen Nevado dira *Gu-Gu Txupete*ko aktoreak, baina izatez lau kide dira. Gidoi guztiak eurek sortzen dituzte, eta inprobisazioa da euren lanaren ardatzetariko bat. Taldekideek aspalditik dihardute antzerkian lanean.

Detritus-en gogokoena formatu txikiko antzerkia da, eta antzoki txiki edo herri elkarteetan eskaintzen dituzte euren saioak, baina baita kafetegietan ere, orain moduan.

AINHOA GARAI (GOENKALEKO AKTOREA)

«Antzezpenean sartzea oso zaila da, baina, ekinez gero, lor daiteke»

Arrasatearra da, baina, egunero, Arraldeko kaleetan ikusten dugu Ainhoa Garai 18 urteko gaztea. Izan ere, *Goenkale* telesail ezaguneko aurpegi berri-
netarikoaren artean dago. Ikaslea eta trikitilaria da, eta hori guztia aktore lanarekin bat egiteko gai da Ainhoa Garai. Goenkalen, "Maialen" izeneko neska da.

— **Gustura zabilta Goenkalen?**

— Bai, primeran. Esperientzia berria eta oso polita da niretako. Martxoan hasi nintzen, eta oraindik ere hortxe nabil.

— **Nolatan suertatu zitzaizun aukera hori?**

— Betidanik gustatu izan zait telebista. Iragarki batean, *Hasiberriak Abian* telesailerako casting-a egin behar zutela ikusi eta neure burua aurkeztu nuen. Horren harira, *Goenkalerako* beste aukeraketa bat suertatu zitzaidan, eta han bai, hartu ninduten. Zorte handia izan nuen.

— **Casting-a egitea ez zitzaizun gozoa egingo...**

— Ez, horixe! Erabat urduri nengoen, dar-dar batean... Lehenik, elkarrizketa egin zidaten, eta gero, hainbat proba. Horien artean, bakarrizketa bat bidali zidaten ikasteko eta kamera aurrean esateko. Casting-a ez da batere gozoa, baina egin beharrekoa da. Erantzun zidatenean, izugarrizko poza hartu nuen, ez nuen espero. Antzezpenean sartzea oso zaila da, baina ekinez gero, lor daiteke.

— **Etxean zu bezain pozik geratu ziren?**

— Ilusio handiz hartu zuten; hala ere, gurasoak kezkatu samar zebiltzan, ikasketak bertan behera utziko nituen beldur zirelako. Izan ere, asteen bi egunean joan beharra dut grabatzera, eta orduan, ikas-



kideei apunteak eskatu eta nire aldetik gehiago ipini beharra dut, baina ondo antolatuz gero, guztia ondo eraman daiteke.

— **Zure adineko aktoreei ikasten jarraitzea derrigortzen diete, ezta?**

— Bai. *Goenkalen* hasi aurretik, ohartarazten digute ikasketekin nahitaez jarraitu behar dugula. Notak erakustea ere eskatzen digute, eta ikasketetan ondo dabilzanak baino ez dituzte hartzen. Bate-ren bat eskas baldin badabil ikasketetan, antzezten hasten bada, guztia pikutara bidaliko du eta akabo ikasketak! Telesaila-ko arduradunek garrantzi handia ematen diete gure ikasketei, eta nik neuk ere bai; aktore moduan, egun batetik bestera, lan barik gera zaitezke, eta orduan...

— **Zelako giroa dago kamera atzean?**

— Nik espero baino hobea. Aktoreek asko lagundu zidaten hasieran, eta oso ondo moldatzen naiz eurekin. Profesional moduan, Kontxu Odriozola gustatzen

zait gehien. Ezusteak ere izan ditut, pertsonaren eta pertsonaiaren inongo antzekotasunik ez zegoela ikusita, adibidez, "Isaias" en kasuan.

— **"Maialen"ek jarraitu egingo du?**

— Oraingo, bai; izan ere, ikusleak gurekin ohitu dira eta ez dute gura izaten pertsonaiak hain azkar aldatzerik.

— **Gerora aktore izan gura zenuke?**

— Bai. Dena dela, orain Batxilergo-ko azken ikasturtea egiten ari naiz, eta gero, Zuzenbidea ikasi gura dut. Hori *Goenkaleko* lanarekin batera egitea gustatuko litzaidake, ea aktore moduan bes-telako aukerarik suertatzen zaidan!

— **Jendeak zer esaten dizu?**

— Arrasaten, ezagunak eta umeak hurbiltzen zaizkit. Sentsazio horretara ohitzea kosta egin zait, lotsatia naizelako; baina eskertu ere egiten dut. Herritik kanpo ere etorri izan zaizkit, zer gertatuko den galdetzer.

« *Goenkalen* lanean hasi aurretik, ohartarazten digute ikasketekin nahitaez jarraitu behar dugula »

Euskal zinemagintzaren gaineko mahai ingurua zuzen - zuzenean

Arrasate Irratiak grabatu egin du joan den eguaztenean zinemagintzaren gainean Monterronen egin zen mahai ingurua. Hori dela eta, datorren egunean, hilak 7, eskainiko dizue Arrasate Irratiak, 21:00etan, *Arakatz*en saioan. *Euskal zinemagintza posible ala zientzia fikzioa?*, horixe izan zen AEDk antolatutako mahai inguruaren gaia. Honako hauek eman zuten iritzia bertan: Eneko Olasagasti zinemagileak eta Jon Andueza gidolariak. Aukera paregabea, hortaz, Monterronen izaterik izan ez zenutenondako.



ASTELEHENA - OSTIRALA

- 09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren errepasoa.
- 09:55 Eguneko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, eskelak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

ASTELEHENEAN

- 20:00 Jokoz Kanpo.
- 21:00 Draxtor.
- 22:00 In Session.

MARTITZENEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
- 21:00 Jakidiplost.

EGUAZTENEAN

- 20:00 Binilo ordua.
- 21:00 KK2A.

EGUNEAN

- 20:00 Ostegun-Ero.
- 21:00 Arakatz.

EGUBAKOITZEAN

- 20:00 Planing Prest.
- 21:00 Kale Doinuak.

ZAPATUAN

- 10:00 Bihurrierietan.
- 11:00 Musika klasikoa.
- 12:00 Bi zoro ta zu.

Biharamuneko pilula

Datorren egunean, hilak 7, goizeko 10,30ak aldera, biharamuneko pilularen gainean berba egingo du Maitena Zubia sexologoak. Orain dela gutxi hasi dira biharamuneko pilula sal-

tzen, eta asko idatzi eta esan da pilula horretaz. Esandako guztia zuzena ote den argituko digu sexologoak. Maitenak Arrasateko Sexologi bulegoan egiten du lan.

konzertuak

Sariak!!!

Hainbat sari ditu banatzeko irratia. Esaterako, Munduko Musikaren inguruan Euskaldunon Egunkariak ateratako CD bilduma. Bete zure datuak eta bidali irratira txartela. Telefonoz deitu gura baduzu: 943- 71 17 31

Izen-deiturak:
Tel.:

Bidali gurera: Arrasate Press, Otalora 31, edo deitu Arrasate Irratira: 943 71 17 31.

konzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Ekainak 19: Queens of the stone age (2 sarrera)

Egun hauetarako **SARRERAK** zozketatuko ditugu. Azken eguna: datorren egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

Izen-deiturak:
Tel.:
Zein Kontzertu?

Bidali gurera: Arrasate Press, Otalora 31, edo deitu Arrasate Irratira: 943 71 17 31.

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea (Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



Ezkontza baten ospakizuna erakusten du oraingo asteko argazki zaharrak. Hain justu, Candida Otaduiaren eta Carlos Egidazuren arteko ezkontza. Mendia jauregiaren lorategian dago aterata argaz-

kia, 1942. urtean. Eta, jakina, ezkonberriekin daudenak euren senide eta lagunak dira.

Tente, ezkerretik eskumara, hauek agertzen dira: Maria Otadui, Jose Otadui, Sabina Otadui, Ignacio Egidazu, Maria Lizarralde, Juan Mari Otadui, Teresa Iribe-

campos, Bixente Egidazu, On Paco (Mendiatarren testamentu-betearazlea) eta Candida Otadui ezkonberria.

Bestalde, makurtuta, ezkerretik eskumara, hauek daude: Maria Egidazu, Gregorio Egidazu, Carlos Egidazu ezkonberria, Anton Otadui,

Anun Gorosabel eta Lourdes Gorosabel.

Argazkia:
Venustiano.
Berriemailea:
Mari Tere Egidazu.


ADI! HELBIDE BERRIA DUGU

Orain, San Andres 10 D.an gaude. Gasolindegiaren parean.

TAKOLO AUTOAK

53 P.K Tel.: 943 79 05 86. ARRASATE



OPEL 

OREKATIK JAIOTZEN DA EDERTASUNA


Edertasuna, eguneroko arduraren eta norberaren ongizatearen emaitza da

GORPUTZ TRATAMENDUAK



- Zelulitiaren aurkakoa
- Erreafirmatzaileak
- Estresaren aurkakoa
- Lokatzak
- Hidromasajea
- Drenaje linfatikoak

AURPEGI TRATAMENDUAK



- Hidratazioa
- Tonifikazioa
- Zimurren aurkakoa



ESTETIKA-ZENTRUA
EMAKUME-GIMNASIOA

LIRAIN

Bixente Ferrer, 1 • ARRASATE

Tel./Faxa: 943 79 52 17

ESKAINTZAK

SOLARIUMAK: zutikakoa eta etzandakoa

Bonoa: 10 saio + 1 doan = 9.000 pezeta.

SAIO ERLAXAGARRIA

Lehen 7.000 pezeta. Orain 4.000 pezeta



ETXE MOBEL
MUCIBLES ALTZARIARI

Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE




RKUZ
ALTZARIARI

Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



RKUZ
ELEKTRAGAILUAK

Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert 



RKUZ
SUHALDE INTEGRALA

Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR 

50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik